

{ koaderno } Laura Mintegi

# Errelatoa idatzi aurretik

**B**ortizkeria baten zikloaren amaieran errelatoaren auziak berebiziko garrantzitsua hartu du. Militarki inork irabazi ez duen hone-tan, memoriaren bataila irabazi beharrean daude guztiak. Arazoa da ez dagoela errelato orekatua egiterik alde aurretik protagonis-ta guztiek ez badute gaitasunik azalerazteko beren eran-tzukizuna ziklo bortitzean. Oraingo faseari dagokio bai-tara bueltatzea eta, zintzo, hutsuneak aitortzea. Alderdiek, ordea, hurkoaren akatsa kapitulu bihurtu nahi dute memoriaren liburuan, baina ez daude prest nehork kapitulurik idatz dezan norberaren akatsak age-rian. Memoria lubaki bihurtu dute.

Hemen, ordea, ez dago inor bortizkeriaren dinamikan parte hartu ez duenik.

PPk iraunarazi du frankismoa espirituan eta praxian. Trantsizioko lehen urteetan itxuraldaketa kosmetikoa egin bazuen ere, urtetako gehiengo osoak permititu dio egitea bakarrik diktadura batean egin zitekeena.

PSOE/PSEk lur azpian utzi ditu arbaso erailak eta, idea-rio errepublikarra ahaztuta, gobernutik apuntalatu du frankismoaren egokitzape-na. Hori guztia gutxi balitz, errepresio propioa antolatu du, legez kanpo, indar esta-talekin baino efikazagoa izan nahian kontrainsurjen-tziaren borrokan.

PNVk bi barajarekin joka-tu ohi du gerra aurretik, ge-rra bitartean eta gerraondoan ere bai. Lehen postfran-kismoan ontzat eman zuen bortizkeria, aho txikiaz kritikatu du geroago, eta, azken garaian, aurre egin dio, baina bortizkeriari etekina atereaz Madrilen; es-painiar gobernuaren estrategiari lagundu dio “borti-tzak” ito nahian, euste-horma funtzioa bere eginda, eta, horren truke, Madrilek eskuak libre utzi dizkio au-tonomia bere patrimonio bihur dezan (Arzalluzen in-txaurrondoa).

Ezker Abertzaleak uste izan du erasoari dagokion erantzuna eraso dela, eta frankismoak ez duela beste lengoaiarik ezagutzen bortizkeria baino. Erakundearen ekintzak eremu militarretik eremu zibilera pasatu dire-nean, ordea, ez da gai izan desaktibatzeke dialektika bortitza, eta denbora luzean, luzeegian, babestu du ir-tenbiderik ez duen dinamika.

Herritar abertzale asko (ez soilik ezkerrekoak) bat eto-rriri dira zenbait hilketarekin, garai batzuetan bidezko iku-si baitute indarrez erantzutea kolpisten errepresio basa-tiari. Batetik, memoria kolektiboan bizirik daudelako bide ertzetan oraindik datzaten hildakoak (jeltzaleak, ko-munistak, anarkistak, abertzaleak), eta, bestetik, genozi-dio kulturalak ez duelako etenik izan.

Estatuari eusten dioten alderdiek, aldiz, ez dute zirkinik egin eskubide oinarritzkoenak urratu direnean, ez eta po-liziak langileak hil dituenen. Eta, azkenik, PP, PSOE eta PNV ez dira gai izan torturarekin amaitzeko. Ezta gober-nuan egon direnean ere. Ez dute asmorik izan, bistan da.

Aitormen zintzo eta sakona egin beharrean daude in-dar politiko guzti-guztiak. Bat ere ez da libratzen akatsak aitortzetik. Aitormen serio eta eskuzabalak osatuko du zoru etikoa. Ez dago beste zorurik.

Herritarrak, beren apalean, gogotsu hasi dira istorio txikiz ehuntzen historia handia. Noizbait aurkari izandakoarengana

Herritarrak, beren apalean, gogotsu hasi dira istorio txikiz ehuntzen historia handia. Noizbait aurkari izandakoarengana hurbildu dira eta belarria jarri dute

koarengana hurbildu dira eta belarria jarri dute. Eta ohartu dira ez dagoela alde handirik bataren eta bestea-ren sufrimenduetan. Eta biek ala biek nahi dutela beren ondorengoak bakean bizi daitezela.

Alderdiak, ordea, arduratuago daude kapituluak dikta-tzen nahierara. Arerioaren aitorten urria gerra-trofeo bihurtu dute. Zeken eta laburrera ari dira jokatzan, jakin badakitelako edozein aitorten pasatuko dela historiaren orrietara zorraren atalean. Eta honela gabilta.

Edonola ere, ez da ahaztu behar zenbait gauza aitortze-ak oraindik ere kartzelara eraman zaitzakeela, gerra-lege-dia indarrean dagoelako gerra-gobernu baten eskuetan. Inork ezingo luke esan, hala pentsatu arren, ekintza ba-tzuk justifikaturik daudela. Delitua delako. Solidaritatea bera ere delitua delako. Eta hipokrisia legalitatea baino zabalagoa delako. •